

Otsailaren 24an, Natura Taldeko Ordezkariek, liburutegira joan gara, “Udal Jardunaldi Teknikoetara”.

Bertan, Jon eta Aitorrek, erakutsi digute energiari buruzko informazio ezberdinak. Haien erakusketa amaitu dutenean, Albiz eskolakoak galdera ezberdin batzuk egin dizkiete. Jarraian guk galdera bana egin dugu. Lehenengo galdera, Sergio Merinok egin du Gero Imanol Aguilera, Ibai Gonzalez, Ivan Sanchez, N’Zila Gregorio da Silva, Aintzane Gil, Asier Ramirez eta azkenik Erik Martins.

Galderak hurrengoak izan dira:

- Udaletxea antzeko neurriak (kristal bikoitzak,...), beste eraikin publikoetan ezartzea pentsatu duzue? Adibidez, liburutegiko sarrera atean.
- Zein ondorio atera dituzue Sestaon jarritako baldosa ekologikoetatik? Mereziko luke beste kaleetan ipintzea?
- Mereziko luke plaka fotovoltaikoak eraikin publikoen teilatuetan, ala denak lekuren baten bildutak ipintzea?
- Sestaoko CO2 kontsumo maila jaitsi dela konprobatu duzue? (herri mailan konprobatzea zaila denez, udal eraikin publikoetan gutxienez).



- Zein modu uste duzue dela egokiena, energia kontsumo maila jaisteko? (kotsientziarioa, neurri zigortzaileak, inbertsio publikoak,...).
- Plangintzaren bat egin duzue, energia garbiak edo berriztagarriak bultzatzeko eraikin publikoetan gutxienez?
- Sestaotarrok birziklatzeko ohitura daukagu ala gutxi birziklatzen dugu? Eta zer da gehien birziklatzen duguna?
- Kutsadura akustikoari dagokionez zer neurri hartu du Udaletxeak kutsadura mota hau murrizteko?

Bukatzeko, Begoña Andramariko ikasleak galderak egin dituzte.

Udal teknikariek, galdera guztiak erantzun dituzte, banan banan, modu oso ulergarri batean.

Bukatutakoan eta klasera joan aurretik, Albizeko ikasleekin eta Udal Teknikariek batera, pote bat hartzera joan gara, denok elkarrekin, naturari buruzko gai ezberdinez hitzegiteko.

Argazki asko atera ditugu udal liburutegian, Sestaoko energiari buruz, asko ikasi dugu naturaren alde egiten, eta pasatu dugu.

